

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1813ko abuztuaren 31n, Donostiari su eman eta hiria txikitu zuten Ingalaterrako eta Portugalgo soldaduek; XIX. mendearen hasieran Europa suntsiturik utzi zuten Napoleonen garaiko gerrek ekarri zuten gertakari tragikoetako bat izan zen. Zubietan Aizpurua baserrian elkartu ziren donostiar haiek hiria berreraikitze erabakia eta kemena izan zuten, eta, horri esker, urteak aurrera egin ahala, Donostia handituz eta aldatuz joan da, hirigintzari, ekonomiari, gizarteari zein kulturari dagokionez, gaur hiri moderno eta kosmopolita bihurtzera iritsi arte.

2013an oroituko dugu, beraz, Donostia suntsitu eta ondoren berreraiki eta birsortzea erabaki zeneko bigarren mendeurrena, mugarri historikoa, zor zaion gisan oroitza egin beharrekoa.

Hain zuzen ere, 2011.12.28ko bilkuran erabaki zuen aho batez Udalbatzak bigarren mendeurrenari buruzko Erakunde Adierazpena, hauxe aldarrikatzen zuena: oroitzapen horrek eskatzen zuela jardueraz, hitzaldiz, topaketa akademikoz, eta era askotako ekitaldi kultural, sozial eta ludikoz osatuko zen programazio zabala; eta programa hori prestatzeko beharrezkoa zela hiriko, Gipuzkoako eta Euskadiko erakunde publiko eta pribatuen parte-hartze aktiboa, eta, bereziki, ekonomiako, gizarteko zein kulturako eragileena, bai eta donostiar guzti-guztiena ere. Aldarrikapen hari dagokionez, argi asko erakutsi dute donostiarrek parte-hartzeko konpromisoa; heldu zaigun proposamen-sorta ikusi baino ez dago.

Beharrezkoa zaigu hiritarrek 2013ko ekitaldi eta jardueretarako erakutsi duten energia horri zor zaion giza eta diru baliabideak izatea, bai eta Udaleko taldeekin eta eragile kultural, sozial zein hiritarrek adosturiko eta partekaturiko programa egitea; hiria berreraikitzea erabaki zutela bi mende igaro direla oroituko duena eta donostiarrek asebetete eta harro sentiaraziko dituen.

Orain helburua eta erronka, 1813-2013 bigarren mendeurrena oroitu eta ospatzeko programa antolatzea da, kalitatezkoa, parte-hartzeko aukera emango duena, donostiarrei eta kanpotik datozkigun bisitariei interesgarri gertatuko zaiena, Europa mailako proiektzioa izango duena, eta mugarri garrantzitsu 2016rako bidean, Donostia Europar Kulturaren Hiriburu izango baita urte horretan. 1813-2013 bigarren mendeurrena aukera paregabea dugu, alferrik galdu ezin duguna, Donostiaren irudia kanpoan proiektatzeko eta gertakari historiko hau herritarren inplikazioaren motor bilakatzeko, bertako ekonomia suspertzeko, merkataritza, turismo eta kulturaren alorretan aberastasun eta enplegua sortuko dituen motor bihurtzeko.

Baina, batez ere, bigarren mendeurrenako ekitaldiek balio behar dute 1813an egiatan zer gertatu zen oroitzeko, belaunaldi gazteei ezagutarazteko, zer gertakari historikok ekarri zuten hiria arpilatu eta suntsitzea; goraipatu donostiar haien erabakimena eta indarra, Zubietan elkarturik, errautsetatik hiri berriro eraikitzea hitzartu baitzuten; eta duen balioa eman,



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

halaber, hirigintzak, ekonomiak, gizarteak eta kultural berrehun urte hauetan izan duen garapenari, horri esker bihurtu baita Donostia hiri moderno, ireki eta kosmopolita, erreferentzia puntu hainbat alorretan.

Hitz batean, bigarren mendeurrenak bat egin behar ditu hiriaren iragana, oraina eta etorkizuna, eta kohesio, ilusio eta harrotasunerako baliabide izan behar du donostiar guztiguztientzat.

Horregatik guztiatik, behean sinatzen dugun taldeok, Araudiko 104. artikularekin bat etorri, proposatzen diogu Udalbatzari onar dezala honako

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1.- Donostiako Udalak bereziki garrantzitsu irizten dio 1813-2013, hiria suntsitu eta berreraikitzea erabaki zen une haren oroitzapena egiteari; mugarri historikoa, lau helburu ardatz hartu behar dituen: **ezagutarazi, oroitu, oroitzapena egin eta eraikitzen jarraitu.**

2.- 1813-2013 Bigarren mendeurrenako ekitaldiek balio behar dute 1813an, ezinbestekoa den zorroztasunez, egiatan zer gertatu zen oroitzeko, belaunaldi gazteei ezagutarazteko zer gertakari historikok ekarri zuten hiria arpilatu eta suntsitzea; goraipatu donostiar haien erabakimena eta indarra, Zubietan Aizpurua baserrian elkaturik, errautsetatik hiri berriro eraikitzea hitzartu baitzuten; eta duen balioa eman, halaber, hirigintzak, ekonomiak, gizarteak eta kultural berrehun urte hauetan izan duen garapenari, horri esker bihurtu baita Donostia hiri moderno, ireki eta kosmopolita, aitzindari alor batean baino gehiagotan.

3.- Bigarren mendeurrena egitasmo kolektiboa da –hala erakutsi dute donostiarrek bidalitako proposamen eta egitasmo ugariak– eta erakunde publiko eta pribatuen parte hartzea behar du, eragile ekonomiko, sozial eta kulturalena, eta donostiar guztiena.

4.- Halaber, bigarren mendeurrena aukera paregabea da Donostiaren irudia hemendik kanpo proiektatzeko, aukera paregabea oroitzapen-ekitaldiak bertako ekonomia suspertzeko motor bihurtzeko, hiriko merkataritza, turismo eta kultura alorrean aberastasuna eta enplegua sortzeko, aukera paregabea funtsezko mugarri izateko 2016an Europako Kultura Hiriburu izatera eramango gaituen bidean.

5.- Aipatutako helburuak lortzeak eskatzen du askotariko jardueraz osatutako programazioa antolatzea: izaera akademiko, kultural, sozial zein jai-girokoak. Hiriaren eta donostiarren historian bigarren mendeurrenak duen garrantziaren arabera programazioa, 2013. urte osoan zehar hezuramaituko dena.

6.- Gertatutako ezagutu, oroitu eta haren oroitzapena egiteak eskatzen du, halaber, programazioak izan behar dituela bere baitan Giza Eskubideak, eta Bakerako eta Bizikidetzarako heziketa ardatz izango dituzten ekimenak, haur eta gazteei bereziki zuzenduko zaizkienak.




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

7.- Aldi berean, bigarren mendeurrenak utzi behar luke bere mugarria etorkizunerako hiriaren arkitekturan, kontuan izanik berreraikitzeak itxura-aldaketa ekarri ziola Donostiari, gaur eredutzat hartzen den garapen urbanistiko eta arkitektonikoa, alegia.


8.- Bigarren mendeurrenak etorkizunari ere begiratu behar dio, eta hiriaren geroaz gogoeta egiteko guneak eskaini, akademian, ekonomian, gizartean edo kulturaren eragile direnek azter dezaten krisia leku guztietara zabaldu den garaiotan, zein diren XXI. Menderako "berreraikitze", "birsortze" aukerak.

9.- Donostiako Udalbatzak eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari parte har dezaten, aktiboki, Donostiaren Berreraikuntzaren bigarren mendeurrenaren ospakizunean. Halaber, deia luzatzen die Gipuzkoa eta Euskadiko herritarrei eta ospakizun honetan parte hartu nahi duten erakunde pribatu nahiz publiko orori.


Donostian, 2012ko urriaren 5ean




Josu Ruiz
Bildu udal taldea



Marisol Garmendia
PSE-EE udal taldea



Jose Luis Arrue
PP udal taldea



Eneko Goia
EAJ/PNV udal taldea

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El 31 de agosto de 1813 la ciudad de San Sebastián fue incendiada y destruida por las tropas aliadas anglo-lusas en un trágico episodio de las Guerras Napoleónicas que asolaron Europa a comienzos del siglo XIX. Gracias a la decisión y al espíritu cívico de los donostiarros de aquel entonces reunidos en el caserío Aizpurua de Zubieta, San Sebastián volvió a reconstruirse para, con el devenir de los años, crecer y transformarse urbanística, económica, social y culturalmente, en la ciudad moderna y cosmopolita que es en la actualidad.

En 2013 se celebra, por tanto, el Bicentenario de la destrucción y posterior reconstrucción y refundación de San Sebastián, un hito histórico que tiene que ser conmemorado por la ciudad como merece esta efemérides.

De hecho, la Corporación Municipal aprobó por unanimidad en el Pleno de fecha 28.12.2011 una Declaración Institucional relativa al Bicentenario en la que se proclamaba que dicha conmemoración requería una programación de actividades, conferencias y encuentros académicos, espectáculos y actos de distinta índole cultural, social y festiva, en cuya elaboración y gestión deben implicarse de forma activa las instituciones públicas y privadas de la ciudad, del territorio de Gipuzkoa y del País Vasco y, especialmente, los agentes económicos, sociales, culturales, así como el conjunto de la ciudadanía donostiarra. Una ciudadanía que ha demostrado sin dejar lugar a dudas su voluntad de participación, superando todas las expectativas que pudiéramos tener al respecto. Prueba de ello son las casi 400 propuestas recibidas.

Es necesario contar con los recursos humanos y económicos necesarios para aprovechar al máximo esa energía ciudadana volcada en la conmemoración de 2013 y ser capaces de elaborar, de manera compartida y consensuada con los grupos políticos municipales y los agentes culturales, sociales y ciudadanos, un programa del Bicentenario de la reconstrucción de la ciudad, que sea motivo de satisfacción y orgullo para la ciudadanía donostiarra.

El objetivo y el reto ahora es elaborar un programa de conmemoración del Bicentenario 1813-2013, de calidad, participativo, de interés para los donostiarros, atractivo para los visitantes y con proyección europea, que sirva, además, como hito importante en el desarrollo del programa de San Sebastián 2016 como Capital Europea de la Cultura. El Bicentenario de la ciudad 1813-2013 es una oportunidad que no podemos desaprovechar para proyectar la imagen de San Sebastián en el exterior y para hacer de este evento histórico un motor en la implicación ciudadana y en la reactivación de la economía local, generador de riqueza y empleo en el sector comercial, turístico y cultural de la ciudad.

Pero, ante todo, los actos del Bicentenario deben servir para recordar y dar a conocer con rigor a las nuevas generaciones de donostiarros lo acontecido en 1813, los sucesos históricos que ocasionaron el saqueo y la destrucción de la ciudad; poner en valor la decisión y el coraje cívico de los donostiarros que reunidos en Zubieta decidieron reconstruir la ciudad de sus cenizas y valorar, asimismo, el desarrollo urbanístico, económico, social y cultural que



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ha hecho avanzar y progresar a San Sebastián en estos últimos 200 años como ciudad referente en muchos ámbitos, moderna, abierta y cosmopolita.

El Bicentenario debe, en definitiva, aunar el pasado, el presente y el futuro de la ciudad, sirviendo de instrumento de cohesión, ilusión y orgullo ciudadano para el conjunto de la ciudadanía donostiarra.

Por ello, los grupos firmantes proponemos al Ayuntamiento Pleno, de conformidad con el art. 104 del Reglamento Orgánico del Pleno, la aprobación de la siguiente

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián considera de gran importancia la conmemoración del Bicentenario de la destrucción y reconstrucción de la ciudad 1813- 2013; un hito histórico que debe centrarse en torno a cuatro objetivos: **dar a conocer, recordar, conmemorar y seguir construyendo.**

2.- Los actos del Bicentenario 1813-2013 deben servir para recordar y dar a conocer a las nuevas generaciones de donostiarras, con el debido rigor, los sucesos que ocasionaron el saqueo y la destrucción de la ciudad en 1813; poner en valor la decisión y el coraje cívico de los donostiarras que reunidos en el caserío Aizpurua de Zubieta decidieron reconstruir la ciudad de sus cenizas y valorar, asimismo, el desarrollo urbanístico, económico, social y cultural que ha hecho avanzar y progresar a San Sebastián en estos últimos 200 años como ciudad abierta y cosmopolita, pionera en muchos ámbitos.

3.- La conmemoración del Bicentenario es un proyecto colectivo –así lo está demostrando la ciudadanía donostiarra con sus numerosas propuestas y proyectos–, en el que deben implicarse instituciones públicas y privadas, agentes económicos, sociales y culturales y el conjunto de la ciudadanía donostiarra.

4.- El Bicentenario, asimismo, es una oportunidad para proyectar en el exterior la imagen de San Sebastián, haciendo de esta conmemoración un motor de reactivación de la economía local, generador de riqueza y empleo en el sector comercial, turístico y cultural de la ciudad y un hito esencial en el camino hacia la Capitalidad Europea de la Cultura en 2016.

5.- Cumplir los objetivos indicados requiere una variada programación de actividades de índole académica, cultural, social y festiva, acordes con la trascendencia del Bicentenario para la historia de la ciudad y de la propia ciudadanía donostiarra; programación que se desarrollará a lo largo del próximo año 2013.

6.- Conocer, recordar y conmemorar lo sucedido requiere, asimismo, que en la programación estén presentes actividades centradas en la atención a los Derechos Humanos y en la educación para la Paz y la Convivencia, especialmente orientadas a las generaciones más jóvenes.

7.- El Bicentenario debiera dejar también un hito para el futuro arquitectónico de la ciudad, teniendo en cuenta que la reconstrucción implicó en sí misma, una transformación en la



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

fisonomía de San Sebastián, y supuso un desarrollo urbanístico y arquitectónico que es considerado modelo de referencia.

8.- El Bicentenario debe asimismo proyectarse al futuro, proporcionando espacios de reflexión sobre el porvenir de la ciudad, donde los actores académicos, sociales, culturales y económicos analicen, en este momento de crisis generalizada, cuáles son las oportunidades de "reconstrucción", de "regeneración" para el siglo XXI.

9.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco a participar activamente en la celebración del Bicentenario de la reconstrucción de San Sebastián e invita a sumarse al conjunto de la ciudadanía de Gipuzkoa y Euskadi y a cuantas instituciones públicas y privadas quieran compartir con los donostiarra esta conmemoración.

En San Sebastián, a 5 de octubre de 2012



Josu Ruiz
Grupo Municipal Bildu



Jose Luis Artue
Grupo Municipal PP



Marisol Garmendia
Grupo Municipal PSE-EE



Eneko Goia
Grupo Municipal EAJ/PNV